

Altza

Auditx Akular mahai gainean

Auditx Akularreko proiektua liskar iturri izan da Udalean azken asteotan. Oposizioa, ordea, ez dago soilik Udalean bertan. Altza XXI herri ekimenak egitasmoa gelditzea eskatu du sakoneko eztabaida egin arte.

Sara Soria 943-357037

Altza XXI plataforma duela bi urte sortu zen, eta auzoko hamabost elkarte eta herritar ugari biltzen ditu. Lehenik eta behin, Udala Altzan azken hamarkadetan gertatu den hirigintza anabasaran erantzule zuzena dela adierazi du. "Proiektuarekin, Odon Elorza alkateak arazoari bizkarra eman eta hiriko auzorik dotoreenatarikoa lortu nahi du, San Marcos-eko zabortegira begira".


Bide horretatik, plataformak bizi kalitatea berreskuratzeko Plan Orokorra eskatu du: aparkalekuak, berdeguneak, errepideen hobekuntza... Auzoarentzako Plan Orokorra gauzatzea derrigorrezkotzat jotzen du herri ekimenak, iraganeke hirigintza neurrigabeke-riak ez errepikatzeke.

Auditx Akularreko proiektuarekin, auzoak 12.000 biztanleko hazkundera izango luke, horrek ekarriko lukeen masifikazioarekin. "Gure ustez, egungo

baliabide eta zerbitzu publiko-ek gainezka egingo dute: kiroldegia, ambulategia, autobus zerbitzua, esaterako", adierazi dute Altza XXI plataformakoek.

Iruzurra


Plataformak argi eta garbi utzi du ez dagoela babes ofizialeko etxebizitzaren kontra, baina bere ustez, arazoa ez da konponduko 3.000 etxe berri eraikita. Gazteentzat izango ei diren 2.350 etxebizitzak egungo egoera ezkutatzeko iruzurra dela diote plataformakoek. "1995etik hona 14.000 etxebizitza eraiki dira, eta orduz geroztik prezioek igo baino ez dute egin. Horrez gain, aldikako kontratuak hedatu eta ugartu dira. Baldintza hauetan, soilik ekonomia ahalmen handia duten sektoreetara mugatuko da etxebizitzaren erosketak, nahiz eta babes ofizialekoak



izan", jakinarazi digu plataformako kide batek.

Udalak 2.000 milioi pezeta (12 milioi euro) baino gehiago inbertitu ditu lurra erosten eta, plataformaren ustez, diru publikoarekin espekulatu du Udalak. "Lurzorua nekazaritza erabilerakoa da, eta horrek esan nahi du ezin dela erosi sei euro baino gehiagorengatik metro karratuko. Udalak, ordea, 33 euro baino gehiago ordaindu ditu metro karratuko, eta horrek eragina izan dezake etorkizunean egindako edozein balorazio-tan".

Lurrak erosten bukatutakotan, Udalak 4.500 milioi pezeta (27 milioi euro) gastatuak izango ditu bertan. Lurra birkalkifikatzeko eta bertan eraiki ahal izateko, Udaltzaren gehiengo osoaren eta Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren oniritzia behar da. Beraz, plataformaren esanetan, "proiektuak aurrera egingo ez balu, Udalak sekulako dirutza gal lezake".



**«Udala dirutza galtzeko arriskuan da»
Altza XXI
plataforma**

Kafea Taberna
RELOJ
berri
Bulebarra 20 • Donostia • (943)42 97 09

ALZA Argiztapena
Herrera pasealekua 82, behea
20017 Donostia • Tel/faxa: 943 352015

Instalakuntza elektrikoak

- Berrikuntzak etxebizitza eta lokal komertzialetan.
- Dekorazio eta iluminazio proiektuak.
- Konpromezurik gabeko aurrekontua.

Opariak
Altzari osagarria